


EGOITZAK

SANTA TERESA

Egoitzak



IDAZPURUA: Egoitzak edo BARNE-GAZTELUA.

Idazlea: Jesus'en Teresa Deuna, Eliz-Irakaslea.

Euskeratzaillea: Aita Onaindia.

Azaleko marrazkiak: M. T. Agirre-goikoa Aristondo'k.

Argitaldaria: Aita Karmeldarrak-Larrea'n.

Urtea: 1981.

Irarkolea: Gráficas Lizarra.—Estella (Navarra).

* * *

Aita Santi lekaide guztiz langilleak beste liburu bat argitaratu dausku. Eta betikoa esan bear: Nondik ateraten ete dau astia gure aita Santi'k ainbeste lan egiteko: Batzar bat ba'da, an dago; ikastaro bat eratzen ba'da, an dauka bere itzaldia; edozein aldizkari artzen ba'dogu, an agiri da Santi'ren idaz-lana; ikastolan irakasle, eleizetan izlari, irratietan erranlari...

Eta aurten Teresa deunaren la-reungarren urtea dala-ta, Euskalerria-

ren omenaldia eskiñi nai izan dautso aita Santi'k, euskaldunak ain maitezituan Teresa deunari. Eta asmo orren ondorena, 240 orrialdeko itzulpen-liburu eder au.

* * *

Sarrerako oarra 1980'an egiña da eta eguneratu barik. Alde batetik 1962'an dala diño lareungarren urtea. Or irarkola-utsa nabarmen dago eta zoritxarrez geiegi izaten dira olakoak gure idaztietan. Datorren urtean Aita Santua Avila'ra etorriko dala diño, ori 1980'an esana dan ezkeru ez da betetu, Aita Santuak izan eban ezbearra izan ebalako.

Sarreran, baita, Errekarte'tar Joakin zumarragatarra egiten dauan itzulpena gogoratzen dau, eta liburu argitaratu baiño len eriotzea eldu jakola.

* * *

Amazortzi orrialde luzeren barruan, liburuari sarrerea egiten dautso Santi'k. Bearrezkoa au be, batez be Teresa deunaren jokabidea eta pentsabidea karmeldar edo eleizbideko ez diran askorentzat uler-gaitxak izan daitekezalako: bere izkera pozgarria ta erritarra, «sukaldean gardostua», iñoiz ez illuna, beti opa-rotsua.

Gero Teresa'k idatzitako liburuen zerrendea ta EGOITZAK liburuaren garrantzia aztertzen dauz, zazpi egoitz edo egon-lekuetan zer agertzen dauan azalduz. Liburu ulertzeko jakin-bearra au, benetan.

Mistika edo Ezkutu-iztiaren arloan Teresak izan eban oarmena edo «experiantzia» azaltzen dau gero. Literatura-arloan izan diran ezkutu-iztiko idazle euskaldunak bat baiño geiago izan dira, baiña munduko literaturak, elertiak, izan dauan arlo zabal onetan gai sakonak eta uler-gai-

txak agertzen dira eta orregaitik sarrera on bat bear da liburu eskuartean artzen dauana bat-batean gogaituta geratu ez daiten.

* * *

Ogei ta zazpigarren orrialdean, Teresa'k berak ezarri eutson Idaz-puru luzea dakar, euskeratuta, eta len esana beteteko, irarrutz pare bat daulazala: *lau*(lan) eta *karmeldar*. Eta jarraian Idazle deunaren sarrerea, liburu au idazteko agindua betetea gatx egin jakola esanez.

Ogei ta amaikagarren orrialdean, *Dos capítulos, bi idazpuru*, itzultzen da, baiña itzulpena ez da egokia nire ustez, bi atal edo olako zerbait obeto izango zan.

Azkenean, 235n. orrialdean, lan amaituaren poza agertzen dau Teresa'k egokiro.

* * *

Liburu onetan Aita Santi'k euskera ederra ta garbia, egokia ta ulerterreza darabil.

Ez da bizkaieria, gipuzkoeria baiño. Ez dakit zergaitik artu dauan itzultzailleak euskalki ori. Erdikoa dalako? Geiagok erabilten dabelako?

Gaur geiago oikeran edo «modan» dagoalako? Erantzuna berak emon al izango dau. Dana dala, badakigu Santi'k zelako maitasuna dautson gure bizkaierari eta zio sakonen bat izango zan bere barruan gipuzkoeraz idazteko. Gaiñera, bixkairarrak gipuzkoeria erabilten dabenan, beti sartzen dabe gure euskalkiaren zerbait eta ori be euskera aberasteko bidea izan leiteke, benetako baturako bidea.

Zorionak eta eskerrak Aita Santi'ri.

OLAZAR'tar Martin'ek